

Neandertalen gorotza, haien dieta ezagutzeko giltza

Biomarkatzaileak aztertuta, baieztatu dute landarejaleak ere bazirela

Neandertalen gorotz fosildua aztertuta, frogatu dute El Salt (Alacant) aztarnategiko neandertalek, haragiaz gain, landareak ere jaten zituztela. PLOS One aldizkarian argitaratu dute ikerketa, eta, bide batez, ikertzaileek erakutsi dute erabilitako metodologia aproposa dela garai hartako gizakien dieta ezagutzeko.

Hain zuzen, ikertzaileek azaldu duteenez, neandertalen dietari buruzko orain arteko ezagutza zeharkako ebidentzietan oinarritzen zen. Hala, haien bizilekuetan azaltzen diren hezurren fosilek eta arrastoek erakusten dute animalia belarjale handiak ehizatzen zituztela, bereziki espezie jakin batzuetakoak. Are gehiago: dieta hain espezializatua izatea desagertu izanaren arrazoietakoa bat izango litzateke, batzuen ustez.

Berriki, ordea, hortzetan topatutako arrastoek ikuspegi hori aldarazi dute, ikusi baitute landare-espezie asko koziatzen eta jaten dituztela. Hala ere, datu horiek ere ez ziren nahikoak dietaren osiera ezagutzeko. Orain, La Lagunako Unibertsitateko eta MITeko ikertzaileek neandertalen gorotzean biomarkatzaile batzuk aztertu dituzte, eta, horren bidez, ikusi dute orojaleak zirela. Gainera, haien hesteetan bizi ziren bakterioei (mikrobioma) eta digestio-aparatuari buruzko informazioa ere jaso dute.



El Salt aztarnategia, Alacanten. ARG.: AINARA SISTIAGA.

Ainara Sistiaga ikerketa-buruaren esanean, "lehen aldia da gorotzetako biomarkatzaileak erabili direla, neandertalen dieta ikertzeko". Gorotz horiek duela 50.000 urtekoak dira, gutxi gorabehera, eta inoiz topatutako gorotz zaharrenak direlakoan daude.

Analisian, 10 gramo hondakin erabili dituzte. Haietan, dietarekin eta elikagaien metabolismoarekin lotutako hainbat koposatu aurkitu dituzte, hala nola koprostanola eta fitoestero-

lak. Lehena hesteetako bakterioen eraginez sortzen da, kolesteroletik abiatuta, eta haragia jaten zutela adierazten du; 5-beta-estigmastanolak eta beste fitoesterol batzuek, berriz, landareak ere jaten zituztela.

Horrenbestez, ikertzaileek ondorioztatu dute El Salteko neandertalak orojaleak zirela. Horrez gain, kolesterola koprostanol bilakatzen zutela ikusita, haien hesteetako mikrobioma gurearen antzekoa zela ere jakinarazi dute. ●

Aurrerapauso handiak transplanteetarako organoen iraupenean

Transplantatzeko egokiak diren organoek denbora gehiago irauteko metodo bat garatu dute, arrakasta handiz. Oraingoz, arratoietan bakarrik probatu dute, gibelarekin, baina, ikertzaileen esanean, emaitzak oso itxaropentsuak dira.

Massachusettseko Ospitalean garatu dute metodoa, eta organoa izoztu gabe asko hoztean oinarritzen da. Berez, zientzialariak aspalditik saiatu dira organoak ahalik eta

gehien hozten, haien iraupena luzatzeko, eta, aldi berean, izozteak eragiten dituen kalteak saihesten. Alabaina, saiakerek ez dute emaitza onik izan. Hala, organo bat pertsona bati hartu eta beste bati transplantatzeko, 12 ordu baino ez dituzte izaten sendagileek. Orain, ordea, badirudi organoak egoera onean iraunarazteko formula egokiarekin asmatu dutela.

Nature Medicine aldizkarian argitaratu dute ikerketa, eta, haren arabera, gakoa glukosaren antzeko koposatu batean dago: 3-O-metil-D-glukosa. Horri esker, gibelak -6 °C-tara gordetzea lortu dute, izoztu gabe.

Esperimentuan, hiru egunez kontserbatutako gibelak transplantatu zizkieten arratoiei. Emaitza: metodo berriaren bitartez kontserbatutako gibelak jaso zituzten arratoiek

bizirik jarraitzen zuten hiru hilabete igaro ondoren; aldiz, ohiko metodoaren bitartez kontserbatutakoak jaso zituzten guztiak hil egin ziren.

Metodoa giza organoentzat egokia dela frogatzen bada, kalkulatu dute urtean 5.000 organo gehiago transplantatzeko aukera izango dutela Estatu Batuetan. ●

Albiste gehiago
webgunean

